CAOSTICA 13

1. **Caostica 13**n parte hartuko duten guztiek bete behar dute araudia
2. **Hemengo zein nazioarteko lanak**. Gaztelaniaz ez dauden lanek azpitituluak eraman behar dituzte hizkuntza honetan. Ez dira beharrezkoak Bideoklip Atalean.
3. Egileak nahi beste film labur aurkez ditzake, beti ere **2014ko urtarrilaren 1etik aurrera** ekoiztu badira.
4. Caosticako aurreko saioetara bidalitako lanek ezin izango dute parte hartu.
5. Parte hartu nahi duzun **atala adierazi** behar duzu
    a. **Bideozinema atala**: edozein zinema (8mm, Super8, 16 edo 35 mm, etab.) edo Bideo (BetaCAM, DV, HDV, SD, etab.) formatu. Gure ustez soberan dago datu hau ez baitugu uste 35 mm-ko bobina bidaliko diguzuenik ezta Betacam-ik moviebeta-ren bitartez. (gehienez 20 min.).
    b. **Bideoklip** atala: (gehienez 10 min.).
    c. **Animazio** atala: edozein formatu (gehienez 20 min.).
6. Atal bakoitzeko irabazleak garaikurra eta diru-laguntza jasoko ditu. Sariak epaimahai profesional eta independente batek emango ditu.
7. BIZARRO SARIA: Caostica Kultura Elkarteak Bizarro Saria emango dio Jaialdiarekin bat datorren lanik lotsabako, berritzaile, bitxi, adeigabeko, martetar, baldar, arraro, arriskutsu, ausart eta adoretsuari, izena eman duen atala edozein delarik ere. Sarira hautatuko duten lanak Bizarro Festa mitikoan proiektatuko dira, eta irabazleak garaikurra eta diru-laguntza jasoko ditu.
8. Turismoari edo publizitateari begira egindako lanak ez dira onartuko, ezta gutxienez %10ean originalak ez direnak ere. Lanen hautaketa prozesuan behar bezala ikusi ahal izateko kalitate tekniko nahikoa ez duten lanek ere ez dute parte hartzerik izango.
9. Egileak ezin izango du bidalitako kopia berreskuratu ezein kasutan.
10. Bidaltze-gastuak laburmetraia inskribatzen duenaren kontu egongo dira. Baldintza hau betetzen ez duten lanak ez dira onartuko.
11. Lanak Movibeta on-line plataformaren (www.movibeta.com) edo Festhome webgunearen bitartez soilik bidal daitezke.
12. Bidali lanak beranduenez 2015eko apirilaren 23an.
13. BideoKlip-a:

Film laburrei baldintzarik gabeko laguntza ematen diegu eta hurrengo puntuetan oinarritutako atal berri honetan parte hartzera animatu nahi zaituztegu:

- Bideoklip-ak: musika konposizio originala bultzatzeko sortu den lana.
- Ezin du 10 minutu baino gehiago iraun
- Edozein musika estilo: pop, rock, hip-hop, techno, punk, soul, r&b, klasikoa,"perreoa" - Maily Saurus, txandal-metal, etab.

Bideoklip atalean parte hartuko dutenek Caostica 13ko arau guztiak bete beharko dituzte.
Bideoklip [Elhuyar]
s.m. Cin.
Bideoklip

14. Aukeratutako film laburrei buruzko erabakia jaialdia baino 15 egun lehenago emango da argitara.
15. Hautaketa batzorderen ustez **jaialdiaren izaera**z bat datozen lanak baino ez dira erakutsiko.
16. La Organización se reserva el derecho de utilizar el material remitido con fines promocionales del Festival, así como para su proyección dentro de las actividades culturales que la **Asociación Cultural Caostica** promueve sin ningún ánimo de lucro.
17. **Caostica Kultura Elkartea**k, aukeratutako lanak proiektatzeko tokia egokituko du eta baliabideak hornituko ditu. Horrez gain, webgunean lanei buruzko informazioa argitaratuko denez, egileek ziur egon behar dute haien edukiak ez dituela jabetza intelektualaren zein hirugarrenen eskubideak urratu. Hortaz, elkartea edozein lege-erantzukizunetatik salbuetsita egongo da.

18. Behin izena eman eta lana aukeratuta, film laburra ezingo da programaziotik kendu.
19. **Caostica 13 jaialdian parte hartzeak araudi hau onartu dela esan nahi du**. Arauei dagokienez, zalantzarik egonez gero, jaialdiaren antolakuntza elkartearen irizpidea nagusituko da.
20. Antolatzaileek araudia aldatzeko eskubidea dute eta edozein desadostasun ebasteko ere.

Zalantzak edo beste gai batzuk argitzeko:
info@caostica.com
URL-a: caostica.com/festival-caostica
Facebook: https://www.facebook.com/caostica
Twitter: @caostica_org